

**UDALBATZARRAK 2011ko MAIATZAREN 17an EGINDAKO EZ-OHIKO BILKURAREN  
AKTA**

2011ko maiatzaren 17an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 20.30etan, Jon Roteta Elola Alkatearen Lehendakari izapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Roteta Elola

ZINEGOTZIAK :

Aitor Eizmendi Garro  
Jose M<sup>a</sup> Aranzabe Urruzola  
Koldobika Jauregi Zinkunegi  
Juan Ignacio Umerez Urrezola  
Ainara Zurutuza Ilundain

Bere ezin etorria azaltzen du: Jose Ramon Hernandez Cristóbal

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1.Saletxe baserrian egin diren lanen legeztatzea, hala bada.**
  - 2.Gure-txokoa etxearen teilatuan luzero bat ateratzeko baimena eskaera, I.Z.S.**
- .../...

**LEHENENGO PUNTUA**  
**SALETXE BASERRIAN EGIN DIREN LANEN LEGEZTATZEA, HALA BADA**

Ikusirik A.G. jaunak eginiko eskaera, non Saletxe baserrian egin dituen legez kanpoko obrak legeztatze baimena eskaera egiten duen, horretarako beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu duelarik.

Ikusirik 2011ko apirilaren 26an izandako Udalbatzarrean, gaia mahai gainean uztea erabaki zela, Udal Aholkulari teknikoak ez zen beste Arkitekto baten txostena izan arte.

Ikusirik Udal Aholkulari Teknikoak den Ignacio Diaz Goena arkitektuak, 2011ko apirilaren 27an egindako txostena, erabaki honi atxikitzen zaiona.

Ikusirik Eba Erkizia Brion arkitektuak 2011ko maiatzaren 16an eginiko txostena, erabaki honi atxikitzen zaiona.

Ikusirik Ignacio Diaz Goena arkitektuak eskaturik, Udal honek gaiari buruz txosten juridiko bat eskatu duela, Andoni Unanue abokatuak, 2011ko maiatzaren 12an eginikoa, erabaki honi atxikitzen zaiona.

Aipaturiko txosten guztiak aztertutik, eta batzarkideen artean adostasun falta dagoelako ondorengo proposamena bozkatzeko da (ixilpeko bozketa egiten delarik):

“A.G. jaunak Saletxe baserria eraberritzean egindako ekialdeko eustormaren ordez egindako egitura legeztatzeko eta udal baimenari egokitzeko, azpikaldeko espazioa lurrez bete beharko du. Itxitura berriak hormigoizkoak izango dira, kanpo itxura harlangaitzezkoa izanik eta Udal Teknikariak otsailaren 28ko txostenean esaten zuen bezala, baserri inguruko sestrak sarrera nagusietan horizontalak izango dira hasierako udal baimenean bezala”. Gainera, eustorma, betelana eta itxitura egitean, Udal honi jakinarazi beharko dio, Udaletxeak momentuz momentu agindutako lanak ondo egiten ari dela ziurtaraziko duelarik. Betelanaz gain, iparraldeko hormigoi armatuzko itxitura berriak metro bateko zabalera izango du bere osotasunean”.

Proposamena bozkatu egiten da, ondorengoa delarik emaitza:

- Aldeko botuak: 3
- Kontrako botuak: 0
- Txuriak edo abstentzioak: 3

Beraz, bozketaren emaitza ikusirik, Udalbatza honek gehiengo soilaz, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:

LEHENA:A.G. jaunak Saletxe baserria eraberritzean egindako ekialdeko eustormaren ordez egindako egitura legeztatu, ondorengo baldintzekin: udal baimenari egokitzeko azpikaldeko espazioa lurrez bete beharko du. Itxiturak hormigoizkoak izango dira, kanpo itxura harlangaitzezkoa izanik eta Udal Teknikariak otsailaren 28ko txostenean esaten zuen bezala, baserri inguruko sestrak sarrera nagusietan horizontalak izango dira hasierako udal baimenean bezala.

Gainera, eustormaren lanak egitean eta betelana egitean, momentuz momentu Udal honi jakinarazi beharko dio, Udaletxeak agindutako lanak ondo egiten ari direla ziurtaraziko duelarik. Horretarako Jon Roteta Alkatea eta Jon Umerez zinegotzia, Udal Arkitektoarekin Saletxe baserrian bertaratuko dira, Udalak S. anai/arrebei jakinaraziko dielarik zein momentutan Saletxe baserrira joan behar diren, azken hauek ere bertan izan nahi badute.

Betelanaz gain, iparraldeko hormigoi armatuzko itxitura berriak metro bateko zabalera izango du bere osotasunean.

BIGARRENA: A.G. jaunari lizentziatik kanpo egindako lanak gelditzeko erabakia bertan bera uztea. Hartutako erabakiaren arabera egin beharko dituelarik.

HIRUGARRENA: A.G. jaunari jakinarazi Udal honek izango dituen Arkitekto eta Abokatuen gastuak bere gain izango direla, isun modura.

LAUGARRENA: A.G. jaunari erabaki honen berri ematea.

BOSTGARRENA: S. anai/arrebei erabaki honen berri ematea.

**BIGARREN PUNTUA**

**GURE-TXOKOA ETXEAREN TEILATUAN LUZERO BAT ATERATZEKO BAIMENA  
ESKAERA, I.Z.S.**

Ikusirik I.Z.S. jaunak eginiko eskaera, non Gure-txokoa etxearen teilatuan luzero bat ateratzeko baimena eskaera egiten duen, horretarako aurrekontu bat aurkezten du.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

**ERABAKITZEN DU:**

LEHENA: I.Z.S. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da, Gure-txokoa etxearen teilatuan luzero bat ateratzeko baimena ematea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunari ematea.

HIRUGARRENA: Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 22.30 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*